



**734/2022 EBAZPENA, IRAILAREN 14KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ HUTSIK UZTEN DEN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO GARAPENENKO ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDETZAKO EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOAN ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUN/EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARI-LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIA.**

**AURREKARIAK**

Uztailaren 1eko Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 563/2022 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboan Arlo Korporatiboko Teknikari Arduradun/Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikari lanpostu bat aldi baterako barne-sustapen edo zerbitzu-eginkizun bidez betetzeko. Ebazpena 2022ko uztailaren 12an argitaratu zen webgunean.

**EBAZTEN DUT:**

Hutsik uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboan Arlo Korporatiboko Teknikari Arduradun/Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikari lanpostu bat aldi baterako barne-sustapen edo zerbitzu-eginkizun bidez betetzeko deialdia, hautagairik aurkeztu ez baita.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 14a



Luisa Larrauri Ereñozaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD